

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK

2013ko urtarrilaren 22an aurkeztuko du

Historiaren istorioak



GUGGENHEIM BILBAO

Historiaren istorioak

- **Irekiera-data:** 2013ko urtarrilak 22tik maiatzaren 19ra
- **Komisarioa:** Petra Joos
- **Kokalekua:** 305., 306. eta 307. aretoak

Guggenheim Bilbao Bildumaren aurkezpen honetan, *Historiaren istorioak* erakusketan, bi lan nagusi aurrez aurre jarri dira: bata Cy Twomblyrena eta bestea Georg Baselitzena. Bi lanotan egileek bizitako istorioak txertatu dituzte, eta, halaber, pertsonaia historiko jakin batzuen nondik norakoak berraztertu dituzte keinuz betetako arte-lengoaia erabiliz; halere, ez zaizkie espresionismoei lotzen. Aztertutako historiaren aldiak bata bestetik oso urrun daude, gainera.

Bai Twomblyren bai Baselitzen lan egiteko modua artista garaikide jakin batzuek gertakizun historikoetatik abiatuta erabilitakotik aldentzen da. Izan ere, artista garaikide horiek “irudi bihurtzen dute azken aldiko gauzen mundua”. Era berean, Ernst van Alphen-ek “historiografia berria” terminoa erabili du egungo artista garaikide horien joera bat izendatzeko, hain zuzen, honakoa: historiaren eta iraganaren gaineko lanak egiteko orduan, oinordetzan jasotako errealitatea “postproduktzio” ariketa baten bidez eraldatzen dute, beraz, “historialari”ak dira, Walter Benjamin-ek emandako adieran, bederen. Twomblyk eta Baselitzek ez dute halakorik egiten: ez dute historia bereganatzen errealitatea beste ikuspegi batetik edota beste modu batean agertzeko, eta ez dituzte gertakizun historikoak berrinterpretatzen; aitzitik, gertakizun historikoetan oinarritutako istorioak egiten dituzte, eta horiek artistaren ikuspuntutik kontatzen. Zirikatzaileak dira, alabaina, artearen alorrean, ez politikarenean.

Komodori buruzko bederatzi gogoeta

1950eko hamarkadaren erdialdera, AEBko armadan kriptografo-lanetan ari zela, Cy Twomblyk marra, zirrimarra eta graffiti estiloko lerro aztoratuen bere estiloa sortu zuen. Lerro horiek garai hartan nagusi zen Espresionismo Abstraktuari aipamen egiten diote. 1957an Erromara behin betiko lekualdatu ondoren, Espresionismo Abstraktuaren keinuzko askatasuna historiaren pisuaz konpentsatu zen, eta hari lotuta geratu. 1950eko hamarkadaren bukaerako eta 1960ko hamarkadaren hasierako lanek Twomblyk historia, antzinako mitologia eta Italiako literatura klasikoari buruz nola lilura gero eta handiagoa zuen agertzen dute.

1962 eta 1963 artean, Twombly margolan hitsagoak egiten hasi zen; izan ere, horiek egiteko erreferente historikoak ere ilunagoak ziren. Estilo aldaketa hori 1960ko hamarkadaren hasierako aldarte ezkorri zor dakiok: orduantxe gertatu ziren Kubako misilen krisia eta AEBko presidente John F. Kennedy-ren erailketa. 1963ko neguan, Komodori buruzko bederatzi gogoeta (*Nine Discourses on Commodus*) margolan-zikloa egiteko hainbat erailketa historiko hartu zituen abiapuntu: Aurelio Komodo (161–192) enperadore erromatarraren ankerkeriak eta erokeriak eragindakoak eta haren hilketa bera. Gatazka, aurkaritza eta tentsioa dira nagusi margolanen konposizioan. Materiazko bi kiribil dira mihise guztien muina, baina mihiseek pizten dituzten aldarte eta sentimenduak aldakorrak dira: hasierakoetan, hodeien antzeko irudiak daude eta halako baretasuna sorrarazten dute; azken panelean, berriz, odola darien zauriak agertzen dira, apoteosi asaldatuaren isla. Artistaren ibilbideko garai ilun baina bikain horren erakusgai da ziklo hau.

Lenin andrea eta urretxindorra

Georg Baselitzek *Lenin andrea eta urretxindorra* (*Lenin and the Nightingale*) lana 2008an egin zuen. 16 mihisek osatzen dute; horietako 8 hondo zuriaren gainean egindakoak dira eta pintzelkada koloretsuak dituzte, eta beste 8ak hondo ilunaren gainean margotutakoak dira, kolore hitsez gainera. Konposizio-egitura bera baliatu zuen oinarritzat, baina: bi gizon buruz behera, bata bestearen ondoan eserita daudenak eta zakilak agerian eta eskuak izter gainean dituztenak. Irudi horren iturria Otto Dix-en *Artistaren gurasoak II* (*Die Eltern des Künstlers II*, 1924) erretratu ezaguna da; beste lan askotan bezala, Baselitzek artearen historiako aurreko lan bat hartu eta bere modura berrinterpretatu zuen. Lan honetan, jatorrizko irudien ordeztu, bi diktadore margotu zituen: Vladimir Lenin eta Josiv Stalin. Lehenengoa “Lenin andrea” gisa erretratatu zuen —gona eta takoidun zapatak daramatza— Lenin mozorrotzea gustuko zuela aditzera emateko. Bigarrena “urretxindorra” da, ahots ona baitzeukan eta oso maite baitzuen poesia; gainera, Johannes R. Becher-en poema bat dakar gogora Baselitzek, horretan Becherrek urretxindorra balitz bezala deskribatu baitzuen Stalin.

Lanaren hamasei pinturari izenburua jarri zien artistak; gehienak hitz-jokoak edota esaldi misterioitsuak dira. Izenburu horietatik batek ere ez ditu aipatzen zuzenean erretratatuak diktadoreak; aitzitik, tituluak sortzeko beste artista batzuekin izandako topaldietatik zein artista moderno eta garaikideek eragindako gogoetatik edaten du Baselitzek. Honako artista hauei lotzen zaizkie pinturak: Cecily Brown, Jake eta Dinos Chapman, Willem de Kooning, Tracey Emin, Philip Guston, Damien Hirst, Anselm Kiefer, Jeff Koons eta Piet Mondrian, besteak beste.

Didaktika

Erakusketaren didaktika gunean Georg Baselitzen eta Cy Twomblyren artea aztertzen da, haien hitzetatik abiatuta. Aukeratutako aipu horiez gain, ikus-entzunezkoak daude. Hartara, artistek egindako hausnarketa sakonak eskuragai daude, gai hauei buruzkoak: sortze-prozesua, historiaren garrantzia eta kolorearen eta osagai grafikoaren erabilera. Halaber, irakurketa-txoko bat dago, bibliografia berezitua kontsultatzeko.

Azaleko irudia:

Georg Baselitz

Lenin andrea eta urretxindorra (*Mrs Lenin and the Nightingale*), 2008 (xehetasuna)

Hamasei mihise

Olio-pintura mihise gainean

300 x 250 cm bakoitza

Guggenheim Bilbao Museoa

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketing Arloa

Tel: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Cy Twombly

Lexington, Virginia, 1928 | Roma, 2011

- 1928 Apirilaren 25ean jaio zen Lexington-en (Virginia).
- 1947 Bi urtez School of the Museum of Fine Arts-en (Boston) ikasi zuen.
- 1950 Ikasketak New Yorkeko Art Students League-n jarraitu zituen eta han Robert Rauschenberg ezagutu zuen.
- 1951 Ipar Carolinako Black Mountain College-n sartu zen eta bertan Franz Kline, Robert Motherwell eta Ben Shahn irakasleen eskolak jaso zituen.
Brody Gandy-rekin batera, New Yorkeko Kootz Gallery-n egin zuen erakusketa.
- 1952 Bidaia egin zuen Europa eta Afrikan barna Robert Rauschenberg-ekin batera.
- 1953 Soldadutza AEBko armadarentzat kriptografia-espezialista gisa egin zuen.
Lehen erakusketa egin zuen Italian, Erromako Galleria Via della Croce 71-n.
Robert Rauschenberg-ekin batera egin zuen erakusketa Stable Gallery-n.
- 1955 Pintura zuriz estalitako lehen eskultura abstraktuak egiten hasi zen.
- 1957 Italiara lekualdatu zen.
- 1958 Lehen erakusketa egin zuen Erromako La Tartaruga-n.
- 1959 Tamaina handiagoko lanak egiten hasi zen, testuak eta zenbakiak erabiltzen eta hainbat erreferentzia klasiko txertatzen. 1959 eta 1976 artean ia ez zuen eskulturarik egin.
- 1960 Lehen aldiz New Yorkeko Leo Castelli Gallery-n egin zuen erakusketa.
- 1964 Veneziako XXXII Biennale di Venezia-n parte hartu zuen.
- 1965 Lehen aldiz museo batean egin zuen erakusketa: Museum Haus Lange-n (Krefeld, Alemania).
- 1968 Milwaukee Art Center-ek haren lanen lehen atzera begirako erakusketa egin zuen.
- 1973 Suitzan haren lanaren bi atzera begirako erakusketa garrantzitsu egin ziren: Bernako Kunsthalle Bern-ek pinturen inguruko atzera begirako erakusketa egin zuen eta Basileako Kunstmuseum Basel-ek, berriz, marrazkien ingurukoa.
- 1975 Bere lanak University of Pennsylvania-ren Institute of Contemporary Art-en eta San Francisco Museum of Art-en jarri zituen erakusgai.
- 1976 Marrazkiak jarri zituen erakusgai Parisko Musée d'Art moderne de la Ville de Paris-en.
Berriz ere eskulturak egiten hasi zen, azkena egin eta hamasei urtera.
- 1977 Kassel-eko (Alemania) Documenta 6-n parte hartu zuen.
- 1979 *Cy Twombly. Paintings and Drawings, 1954–1977* erakusketa New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en inauguratu zen.
- 1981 Bere lanak Krefeld-eko (Alemania) Museum Haus Lange-n jarri zituen erakusgai.
- 1982 Kassel-eko (Alemania) Documenta 7-n parte hartu zuen.
- 1984 Azken hamar urteetako lanak Bordeleko CAPC - Musée d'art contemporain de Bordeaux-en jarri zituzten erakusgai.
- 1987 Pinturak, marrazkiak eta eskulturak jarri zituen erakusgai Londresko Whitechapel Art Gallery-ren atzera begirako erakusketa batean eta ondoren, erakusketa hori Zuricheko Kunsthaus Zürich-en eta Parisko Musée national d'art moderne, Centre Georges Pompidou ikusi ahal izan zen.
- 1994 New Yorkeko Museum of Modern Art-ek (MoMA) haren lanaren atzera begirako erakusketa antolatu zuen eta ondoren, erakusketa The Menil Collection-en (Houston, Texas), Museum of Contemporary Art-en (Los Angeles, Kalifornia) eta Neue Nationalgalerie-n (Berlin) izan zen.
- 1995 Goslar hiriaren (Alemania) Kaiserring saria jaso zuen.
- 1996 New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en egon zen erakusgai.
Japan Art Association-ek (Japonia) esleitutako Praemium Imperiale saria jaso zuen pintura kategorian.
- 2000 Basileako Kunstmuseum Basel-ek haren eskulturen erakusketa egin zuen eta ondoren, erakusketa The Menil Collection-en (Houston, Texas) eta National Gallery-n (Washington) egon zen.
- 2001 Veneziako XLIX Biennale di Venezia-ren Urrezko Lehoia jaso zuen obra osoaren aitortzan.

- 2002 Institut Valencià d'Art Modernek (IVAM) Julio González Nazioarteko saria jaso zuen.
- 2003 Paper gaineko lanen atzera begirako erakusketa inauguratu zen Hermitage Museum-en (San Petersburgo, Errusia). Erakusketa bera, urte berean, Municheko Pinakothek der Moderne-n egon zen eta 2004an, Parisko Musée national d'art moderne, Centre Georges Pompidou-n eta Londresko Serpentine Gallery-n.
- 2005 Paper gaineko lanen atzera begirakoa Whitney Museum of American Art-era eta The Menil Collection-era (Houston, Texas) iritsi zen. Maiatzean *Lepanto* jarri zuen erakusgai Museum of Fine Arts-en (Houston, Texas) eta lanak New Yorkeko Gagosian Gallery-n erakusgai jartzen jarraitu zuen. Erroman Twombly-ren paper gaineko lana katalogatzeko artxiboa sortu zuen.
- 2006 Udaberrian Municheko Alte Pinakothek-ek *Cy Twombly Skulpturen (1992–2005)* egin zuen. Erromako American Academy-k McKim Prize saria eman zion.
- 2007 Gagosian Gallery-n (Londres), Thomas Ammann Fine Art AG galerian (Zurich), Schirmer/ Mosel Showroom-en (Munich), Collection Lambert en Avignon-en (Avignon, Frantzia) eta Kunsthaus Bregenz-en (Bregenz, Austria) erakusketak egin zituen. Irailean Parisera bidaiatu egin zuen eta Louvre Museoaren Salle des Bronzes-en sabairako pintura bat egiten hasi zen (2010erako bukatzea aurreikusten da).
- 2008 Londresko Tate Modern-en, komisario-lanetan Nicholas Serota zuen *Cy Twombly: Cycles and Seasons* atzera begirakoa inauguratu zen. Urrian Guggenheim Bilbao Museoak, Tate Modern-ekin lankidetzan, komisario-lanetan Carmen Giménez zuen *Cy Twombly* erakusketa antolatu zuen. Londresko erakusketa Erromako Galleria Nazionale d'Arte Contemporanea-n aurkeztu zen 2009ko martxoan. *Lepanto* azken aldiz aurkeztu zen Madrilgo Museo Nacional del Prado-n Municheko Museum Brandhorst-en behin betiko instalatu aurretik.
- 2009 Municheko Museum Brandhorst inauguratu zen, Cy Twomblyren lan ugari eta garrantzitsuak dituen Udo eta Annette Brandhorst bildumarekin. Lan horiek artistari osorik eskainitako museoaren bigarren solairuan jarri ziren. Art Institute of Chicago-n jarri zituen bere lanak erakusgai, baita Vienako MUMOK Museum Moderner Kunst Stiftung Ludwig-en ere.
- 2010 Chevalier de la Légion d'honneur izendatu zuten Frantzian. Mural bat egin zuen Salle des Bronzes del Musée du Louvre-rako, Parisen. Parisko Gagosian Gallery berria inauguratu zen artistaren erakusketa batekin. Haren obra, beste artista batzuenarekin batera, hainbat museotako talde-erakusketetan egon zen ikusgai: Institut Valencià d'Art Modern (IVAM), Valentzia; San Francisco Museum of Modern Art, San Francisco; Irish Museum of Modern Art, Dublin, eta Whitney Museum of American Art, New York.
- 2011 New Yorkeko Museum of Modern Art-ek (MoMA) eskuratutako artistaren zazpi eskulturak jarri zituen ikusgai. Collection Lambert en Avignon-en, (Avignon, Frantzia) artista hil aurreko azkeneko erakusketa inauguratu zen. Londresko Dulwich Picture Gallery-k *Twombly and Poussin: Arcadian Paintings* erakusketa aurkeztu zuen. *Made in Italy* taldeerakusketan parte hartu zuen, Gagosian Gallery-n, Erroman. Uztailean hil zen, 83 urte zituela.

Georg Baselitz

Deutschbaselitz (Alemania), 1938 | bizi eta lan Ammerse (Alemania) eta Imperia-n (Italia)

- 1938 Jaiotzean, Hans-Georg Kern izena jarri zioten izena.
1950–55 Kamenz-era (Alemania) joan zen bizitzera familiarekin batera. Marrazkigintzako eskola partikularrak jaso zituen Gottfried Zawadski irakaslearekin.
- 1956 Ekialdeko Berlingo Hochschule für bildende und angewandte Kunst eskolan matrikulatu zen.
Pintura ikasi zuen Walter Womacka eta Herbert Behrens-Hangler irakasleekin.
- 1957 Bi sei hilekoren ondoren kanporatu egin zuten Hochschule für bildende und angewandte Kunst-etik, "heldutasun sozial eta politikorik ez izateagatik".
Mendebaldeko Berlingo Hochschule für bildende Künste eskolan matrikulatu zen. Bertan, Hann Trier-en zuzendaritzapean ikasi zuen. Eugen Schönebeck-en eta Benjamin Katz-en lagun egin zen.
- 1958 Jendaurrean aurkeztuko zuen bere aurreneko lana hasi zuen, *Rayski burua (Rayski-Kopf)* saila.
- 1961 Georg Baselitz izena hartu zuen, bere jaioterriari aipamen eginez.
Erakusketa bat egin zuen Schönebeck-ekin Berlingo etxe abandonatu batean. "1. Pandämonisches Manifest" idatzi zuten bien artean, erakusketa iragartzen zuen poster moduan.
- 1962 "2. Pandämonisches Manifest" idatzi zuen Schönebeck-ekin.
- 1963 Berlingo Galerie Werner & Katz-ek Baselitzen aurreneko bakarkako erakusketa aurkeztu zuen. Bi pintura, *Izorratu zen gau handia (Die grosse Nacht im Eimer, 1962–63)* eta *Gizon biluzia (Der nackte Mann, 1962)*, konfiskatu egin zituzten ezmoraltzat jo baitzituzten. 1965era arte luzatu ziren prozesu judizialak; ordura arte, ez zizkioten artistari pinturak itzuli.
- 1964 Bere aurreneko akuaforteak egin zituen Schloss Wolfsburg-en tailerrean. Berlingo Galerie Michael Werner-ek aurkeztu zuen udazkenean akuaforte horien erakusketa.
- 1965 Beka bat jaso eta sei hilabete egon zen Florentziako Villa Romana-n. Grabatu manieristak aztertu zituen bertan.
Haren lanaren aurreneko erakusketa antolatu zuten Munichen, Galerie Friedrich & Dahlem-en.
- 1966 Berlingo Galerie Rudolf Springer-ek *Warum das Bild "Die grossen Freunde" ein gutes Bild ist* bakarkako erakusketa aurkeztu zuen, izen bereko manifestu batekin batera.
- 1968 Ars Viva saria jaso zuen, Kulturkreis der deutschen Wirtschaft im Bundesverband der Deutschen Industrie-k emana.
- 1969 Louis-Ferdinand von Rayski-ren *Wermsdorfeko basoa (Wermsdorfer Wald, 1859)* pinturan inspiratuta, irudi alderantzikatu baten aurreneko lana margotu zuen: *Basoa buruz behera (Der Wald auf dem Kopf)*. Ondoren, *Lagunak (Freunde)* izeneko erretratu alderantzikatuen saila sortu zuen.
- 1970 Baselitzen atzera begirako marrazki erakusketa antolatu zuten Kunstmuseum Basel-en, eta Koloniako Galeriehaus in der Lindenstrasse-k alderantzikatutako irudien aurreneko erakusketa aurkeztu zuen.
- 1971 *Pontaubert – Seurat inguruko basoan (Im Walde bei Pontaubert – Seurat)* triptikoa margotu zuen Berlingo Neurokirurgia Klinikako atondorako.
Erakusketa bat egin zuen Koloniako Galerie Tobiès & Silex-en.
- 1972 Baselitzen lanaren erakusketak egin ziren leku hauetan: Kunsthalle Mannheim, Kunstverein Hamburg, Amsterdamgo Goethe-Institut / Provisorium eta Municheko Staatliche Graphische Sammlung.
Edition der Galerie Heiner Friedrich etxea Baselitzen grabatuak argitaratzen hasi zen.
Documenta 5en parte hartu zuen, Kasselen.
- 1973 *Heroiak (Helden, 1965–68)* saila jarri zuen ikusgai Hanburgoko Galerie Hans Neuendorf-en.
- 1974 Baselitzen atzera begirako aurreneko grabatu erakusketa aurkeztu zuten Städtisches Museum Leverkusen, Schloss Morsbroich-en. Ekitaldi hartarako, Six Friedrich-ek artistaren grabatuei buruzko aurreneko katalogoa landu zuen.
- 1975 São Pauloko XXII Bienal de São Paulon parte hartu zuen.

- 1976 Erakusketa garrantzitsuak izan zituen leku hauetan: Kunsthalle Bern; Kunsthalle KölKolonía; eta Staatsgalerie moderner Kunst, Munich. Azken hau zela eta, artistaren lanaren irudiz hornitutako aurreneko katalogo handia argitara atera zen.
- 1977 Eskolak ematen hasi zen Staatliche Akademie der bildenden Künste-n, Karlsruhe, eta katedradun izendatu zuten bertan, 1978an.
Documenta 6an ikusgai izan zituen pinturak kendu zituen bertatik, Ekialdeko Alemaniako pintoreen parte-hartze ofizialaren aurka protestan.
- 1978 Erakusketa bana izan zuen Amsterdameko Galerie Helen van der Meij-en eta Parisko Galerie Laage-Salomon-en.
- 1979 Baselitzen lanen erakusketak antolatu ziren leku hauetan: Van Abbemuseum, Eindhoven; eta Kunsthalle Köln, Kolonia. "Vier Wände und Oberlicht oder besser kein Bild an der Wand" ("Lau pareta eta argizulo edo, hobe esanda, paretatan dagoen bakar batek ere ez du manifestua aurkezten") manifestua aurkeztu zuen Dortmunden izandako arkitektura konbentzio batean, museoen eraikien inguruko gaiaren ingurukoan.
- 1980 Bere aurreneko eskultura jarri zuen ikusgai, *Modeloa eskultura baterako (Modell für eine Skulptur, 1979-80)*, Veneziako Biennale di Venezia Mendebaldeko Alemaniako Pabiloian.
Ondoren, Londresko Whitechapel Art Gallery-n ikusi ahal izan zen eskultura.³
- 1981 Koloniako Galerie Michael Werner-ek *Kaleko pintura (Strassenbild)* aurkeztu zuen, ondoren Amsterdameko Stedelijk Museum-en ikusgai egon zena.
New Yorke-ko aurreneko erakusketa antolatu zuten Xavier Fourcade-n.
Haren lana *A New Spirit in Painting* erakusketan egon zen ikusgai Londresko Royal Academy of Arts-en, eta Westkunst-en, Cologne Messehallen-en.
- 1982 Documenta 7an parte hartu zuen, Kasselen. Erakusketak izan zituen leku hauetan: Sonnabend Gallery, New York; Young Hoffman Gallery, Chicago; eta Anthony d'Offay Gallery eta Waddington Gallery, Londres.
Baselitzen lana ikusgai egon zen *Zeitgeist* erakusketan, Berlingo Martin-Gropius-Bau-n.
- 1983 Atzera begirako erakusketak egin zitzaizkion Bordeleko CAPC Arte Garaikideko Museoan eta Londresko Whitechapel Art Gallery-n. Bigarren erakusketa hau ikusgai egon zen ondoren Amsterdameko Stedelijk Museum-en eta Kunsthalle Basel-en.
Irakaskuntzari heldu zion berriro Berlingo Hochschule der Künste-n.
- 1984 Bere bakarkako erakusketak aurkeztu zituzten Kunstmuseum Basel-en eta Municheko Staatliche Graphische Sammlung, Neue Pinakothek-en. Bigarren erakusketa hau Genevako Cabinet des Estampes-en ikusi ahal izan zen gero.
- 1985 Parisko Bibliothèque Nationale-k artistaren grabatuen atzera begirako erakusketa bat aurkeztu zuen (aurreko urtean bai München bai Genevan antolatutako erakusketaren bertsio zabalagoa); horretan, Baselitzen eskulturen aurkezpen orokorra ere egin zen.
"Das Rüstzeug der Maler" (Pintorearen ekipamendua) manifestua idatzi zuen.
- 1986 Goslar hiriko Kaiserring saria jaso zuen, baita Hannoverreko Norddeutsche Landesbank arte saria ere. Basileako Galerie Beyeler-ek Baselitzen lanaren atzera begirako erakusketa bat aurkeztu zuen, eta Vienako Wiener Sezession-ek *Bäume* erakusketa.
- 1987 Bakarkako erakusketak izan zituen Hannoverreko Kestnergesellschaft-en eta Koloniako Museum Ludwig-en. "Das Rüstzeug der Maler" aurkeztu zuen hitzaldi moduan Amsterdamen eta Londresen.
- 1988 Baselitzen lanaren atzera begirako erakusketa egin zuten Florentziako d'Arme di Palazzo Vecchio-n, ondoren Hanburgoko Hamburger Kunsthalle-n ikusgai egon zena. Bakarkako erakusketak izan zituen Frankfurtoko Städtische Galerie-n eta Kunsthalle Bremen-en.
Bertan behera utzi zuen irakaskuntza Berlingo Hochschule der Künste eskolan.
- 1989 Frantziako gobernuak Chevalier dans l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu zuen.
- 1990 Artistaren pinturak ordura arte izan zuten atzera begirako erakusketa handiena aurkeztu zuten Kunsthau Zürich-en. Atzera begirako erakusketa hori Städtische Kunsthalle Düsseldorf-en ikusi ahal izan zen.

- Gainera, bakarkako erakusketak izan zituen leku hauetan: Fundació Caixa, Bartzelona eta Madril eta Anthony d'Offay Gallery, Londres. Baselitzen lana ikusgai jarri zen aurreneko aldiz lehen izandako Ekialdeko Alemanian, Berlingo Nationalgalerie im Alten Museum-en.
- 1991 Baselitzen grabatuen atzera begirako erakusketa egin zuten Genevako Cabinet des Estampes-en. Erakusketa leku hauetan egon zen ikusgai ondoren: IVAM, Julio González Zentroa, Valentzia; Tate Gallery, Londres; eta Malmö Konsthall, Malmö (Suedia).
- 1992 Irakasteari utzi egin zion Berlingo Akademie der Künste-n. Municheko Kunsthalle der Hypo-Kulturstiftung-ek artistak 1964 eta 1991 urte bitartean sortutako lanen atzera begirako erakusketa bat antolatu zuen. Erakusketa leku hauetan egon zen ondoren ikusgai: Scottish National Gallery of Modern Art, Edinburgo; eta Museum moderner Kunst Stiftung Ludwig, Viena.
- “Purzelbäume sind auch Bewegung, und noch dazu macht es Spass” (“Itzulipurdika ibiltzea mugimendua eta dibertigarriak dira ere bai”) hitzaldia aurkeztu zuen Municheko Münchner Podium in den Kammerspielen-en.
- Officier de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu zuen Frantziako gobernuak.
- 1993 Veneziako Bienalean parte hartu zuen *Gizonezko gorputz-enborra (Männlicher, 1993)* eskulturarekin, tamaina handiko marrazkiekin batera. Parisko Musée National d'Art Moderne, Centre Georges Pompidou-k artistak 1962 eta 1992 urte bitartean sortutako marrazkiak aurkeztu zituen.
- 1994 “Malen aus dem Kopf, auf dem Kopf oder aus dem Topf?” (“Gogoratu gabe margotuz, alderantziz, nahieran aterata?”) manifestua idatzi zuen *Gotik: Neun monumentale Bilder* erakusketarako, Koloniako Galerie Michael Werner-en antolatutarako.
- 1995 New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-ek artistaren lanaren atzera begirako erakusketa handia aurkeztu zuen lehen aldiz AEBn. Ondoren, leku hauetan egon zen ikusgai: Los Angeles County Museum of Art; Hirshhorn Museum and Sculpture Garden, Washington, DC; eta Nationalgalerie, Berlin.
- 1996 *Armalar* (1994) eskultura instalatu zuten Deutsche Nationalbibliothek-eren eraikin berriko atondoan, Frankfurt-en.
- 1997 Artistaren lanaren erakusketak aurkeztu ziren leku hauetan: PaceWildenstein, New York; Dresdner Kunstverein, Dresden; Modern Art Museum, Fort Worth; Städtische Kunstsammlungen Chemnitz eta Johannesburg Art Gallery.
- 1998 Rufino Tamayo Museoak Baselitzen lanaren aurreneko erakusketa handia Mexiko Hirian aurkeztu zuen.
- 1999 *Georg Baselitz: Gravures Monumentales, 1977–1999* atzera begirako erakusketa handia aurkeztu zuten Musée Rath-en, Genevan.
- Rhenus arte saria jaso zuen.
- 2000 Ohorezko Irakasle izendatu zuen Krakoviako Jan Matejko Academy of Fine Arts-ek.
- 2001 Valentziako IVAM Julio González Zentroak *Georg Baselitz: Escultura frente a pintura* erakusketa aurkeztu zuen, eta Julio González saria jaso zuen artistak, Valentziako gobernuak emana.
- 2002 Commandeur de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu zuen Frantziako gobernuak.
- 2003 Beijingeko Nazioarteko Lehenengo Arte Bienalak lana onenari eskainitako saria irabazi zuen, baita Niedersächsischer Staatspreis saria ere.
- 2004 Bonneko Kunst- und Ausstellungshalle der Bundesrepublik Deutschland-ek artistaren lanaren atzera begirako erakusketa bat antolatu zuen. Praemium Imperiale saria jaso zuen, Japan Art Association-ek emana, eta ohorezko irakasle numerario izendatu zuen Florentziako Accademia di Belle Arti-k.
- 2005 Vienako Österreichisches Ehrenzeichen für Wissenschaft und Kunst saria jaso zuen.
- 2006 Baselitzen lanaren atzera begirako erakusketak antolatu ziren leku hauetan: Louisiana Museum of Modern Art, Humlebaek (Danimarka), eta Fondation de l'Hermitage, Lausanne.
- 2007 Londresko Royal Academy of Arts-ek artistaren lanaren atzera begirako erakusketa bat aurkeztu zuen.
- Veneziako Bienalean hartu zuen parte.

- 2008 Berlingo Contemporary Fine Arts-ek *Georg Baselitz: 23. January 1938* erakusketa aurkeztu zuen.
- 2009 Baden-Badeneko Museum Frieder Burda-k artistaren lanaren atzera begirako erakusketa handi bat aurkeztu zuen.
- 2010 Bakarkako erakusketak izan zituen leku hauetan: Helsinki City Art Museum, Helsinki; Pinacoteca do Estado, São Paulo; Galerie Terminus, Munich; eta Galerie Thaddaeus Ropac, Paris.
- 2011 Guggenheim Bilbao Museoak *Lenin andrea eta urretxindorra* (2008) aurkeztu zuen, 2010. urtearen bukaeran erakundeak erositako Baselitzen pintura saila, hamasei mihisek osatua.
Baselitz sculpteur erakusketa antolatu zuen Musée d'Art moderne de la Ville de Paris museoak.
- 2012 New Yorkeko Gagosian Gallery galerian *Georg Baselitz* erakusketa izan zen.
Das Negativ-New Paintings erakusketa egin zen Galerie Thaddaeus Ropac-en, Salburgen.

Prentsa irudiak:
Historiaren istorioak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Cy Twombly (AEB, 1928–Italia, 2011)

Komodori buruzko bederatzi gogoeta, Erroma, 1963

Olio-pintura, arkatza eta argizari-arkatza mihise gainean

Guggenheim Bilbao Museoa

Lehenengo zatia:

204 x 134 cm



Bigarren zatia:

204 x 133,5 cm



Hirugarren zatia:

204 x 134 cm



Laugarren zatia:

204 x 134 cm



Bosgarren zatia:

204 x 134 cm



Seigarren zatia:

204 x 134 cm



Zazpigarren zatia:
204 x 134 cm



Zortzigarren zatia:
204 x 134 cm



Bederatzigarren zatia:
204 x 133,5 cm



Georg Baselitz (Deutschbaselitz, Alemania, 1938)
Lenin andrea eta urretxindorra (Mrs Lenin and the Nightingale), 2008

16 pintura
Olio-pintura mihise gainean
300 x 250 cm bakoitza

*Beteranoen udan bi tipo makurrek Mike ikaratzen dute
(Im Veteranensommer machen zwei böse Onkel Mike Angst)*



*Eguzkia eta ilargia hartzen Jeff eta Damien-ean (Sonnung und Mondung im Hause
von Jeff und Damien)*



Jake eta Dinos harrapatzen ditu historiak (Jake und Dinos holt die Geschichte ein)



Lucian eta Frank aire zabalean (Lucian und Frank Plein-air)



*Moskuko Hirugarren Internazionalaren Biltzar ahaztua 1920an, irudiaren
eskuinaldean Ralf, haren ondoan Jörg (Der vergessene 2. Kongress der 3.
kommunistischen Internationale in Moskau 1920; rechts im Bild Ralf, daneben Jörg)*



*Anselm-ek Maria ikusi zuen, soineko beige eta urdin bat jantzita Birjina,
honetan aurreko mantal urdina baino ez darama (Anselm hatte eine Marienerscheinung,
er sah die Madonna in beige blauem Kleid, hier trägt sie nur eine blaue Schürze)*



*Richard-ek eta John-ek Long Island-en bisitatu zuten hura eta gehiegi edan zuten
(Richard und John besuchten ihn auf Long Island und tranken zu viel)*



*Bandura-jotzailea izutu zuen Joseph-ek bere Stukarekin
(Joseph hat die Banduraspieler mit seinem Stuka vertrieben)*



*Tracey-k sofaren atzealdean begiratu eta haren marrazkia topatu zuen edo,
hobe esan, Bob-ek utzitako zatia (Tracey schaut hinters Sofa und findet dort seine
Zeichnung bzw. das, was Bob davon übrig ließ)*



*Andy-k buztan gehiago egiten ditu motxin baino (Andy macht mehr Schwänzchen als
Muschis)*



*Paul Mac Vatikanoan, arratsaldean jarleku batean eseri da Leninen alboan eta
kontzertina batek eskerrak jotzen dizkie (Paul Mac im Vatikan, mit Lenin sitzt
er abends auf der Bank und eine Ziehharmonika singt Dank)*



*Jonathan-ek ez daki penizilina aurkitu aurretik pozoindutako zigiluekin esperimentuak
egin zituztela (Jonathan weiß nicht, daß es schon vor der Erfindung des Penicillins
Versuche mit vergifteten Briefmarken gab)*



*Marcel eta Maurizio nahiko antzekoak dira, pentsa genezake,
botikak gorago hegaz egiten du (Marcel und Maurizio sind sich ziemlich ähnlich,
könnte man meinen, die Apotheke fliegt höher)*



*Hari zuri baten moduko argitzea, Pragari buruzko Kiki-ren ametsa
(Hellung als weißer Faden, Kikis Traum von Prag)*



*Abestu zure doinua, Cecily, pintoreen anaiarentzat
(Sing dein Lied, Cecily, für den Bruder der Maler)*



*Piet-en gailuak ez dabilta, malko gehiegi mekanismoa jan dute
(Piets Apparate sind unbrauchbar geworden, zu viele Tränen haben die Mechanik
verätzt)*

